


IPUIN MARRAZTUEN LEHIAKETA



ANOETA 2020



SARRERA

Urte batzuk pasa dira jada Hizki-Marrazki ipuin marraztuen lehiaketa martxan jarri genuenetik. Ume eta gaztetxoen artean idazteko eta marrazteko zaletasuna bultzatzeko asmoz abiatu genuen proiektu hau, eta eskertzekoa da urtez urte ikasleok egiten duzuen ahalegina bertan parte hartzeko.

Aurten oso egoera berezia bizitzen ari gara denok, Covid-19 izeneko “bisitari” bat etorri delako gure artera eta gure ohiturak aldatzera behartu gaituelako. Hala ere, ez diozue uko egin lehiaketa honetan parte hartzeari eta, etxetik bada ere, zuen lanak zintzo-zintzo aurkeztu dituzue. Bejondeizuela!

Badakizue edizio honetan aldaketatxo batzuk egin ditugula. Aldaketa hauek ikasleok iaz egindako proposamenen ondorioz etorri dira. DBHko maila batzuetan ipuin formatua alde batera utzi dugu eta beste formatu batzuetako lanak egiteko eskatu dizuegu. Hori dela eta, aipatu nahi dugu DBH 1eko ikasleen lan sarituak ezin izan ditugula liburu honetara bildu bere osotasunean, diapositibez osatutako aurkezpenak baitira; haiek eskuz egindako marrazkiak bakarrik erakutsiko ditugu liburuxkan. Hala ere, maila horretako bi aurkezpen horiek udaleko webgunearen bidez erakutsiko dizkizuegu.

Saritutako lanak idatzi dituzuenoi zorionak eta eskerrik asko; saririk eraman ez duzuenoi ere bai, denak izan direlako lan txalogarriak. Eta, jakina, mila esker hau guztia posible egiten lagundu diguzuen guztioi ere, epaimahaikide, ikastolako irakasle, ipuin kontalari e.a.

Besterik gabe, eta liburuxka zuen gustukoa izango delakoan, agur bero bat guztioi eta beste bat arte.

2020ko ekaina
EUSKARA ETA KULTURA BATZORDEAK
ANOETAKO HERRI IKASTOLA

LH3
8-9 urte

1. SARIA	
Malaka eta Jaek	6
<i>Harri Iraeta Echarri</i>	
2. SARIA	
Familia musikaria	8
<i>Iraide Langarica Goya</i>	

LH4
9-10 urte

1. SARIA	
Bi ume espazioan	10
<i>Yaiza Jimenez Miguez</i>	
2. SARIA	
Joxeren ametsa	12
<i>Iker Iturrioz Aizpun</i>	

LH5
10-11 urte

1. SARIA	
Jimmi espazioan	14
<i>Mario Vieira Caballero</i>	
2. SARIA	
Badator Koronabirusa	18
<i>Oihan Sarasola Badiola · Iurgi Sanchez Goenaga</i>	

LH6
11-12 urte

1. SARIA	
Denbora geldiketa	20
<i>Luar Agirre Mujika · Eneko Ayestaran Odriozola</i>	
2. SARIA	
Ama Lurraren haserrea	26
<i>Oinatz Errazkin Otamendi</i>	

DBH1
12-13 urte

1. SARIA	
Nire egunerokoa	29
<i>Enara Odriozola Uzcudun</i>	
2. SARIA	
Egun bateko negarra betiko poza	30
<i>June Martin Ulanga</i>	

DBH2
13-14 urte

1 SARIA	
Zuekin harremanetan	31
<i>Ane Otaegi Etxenagusia · Nerea Telleria Ormazabal</i>	

2 SARIA	
Guraso agurgarriak	35
<i>Nahia Gorriti Gil · Ekhiñe Iturbe Elola</i>	

DBH3
14-15 urte

1. SARIA	
Itxaropen hondoratua	38
<i>Mikel Otermin Pagola · Alain Filipe Etxabe</i>	

2. SARIA	
Min egiten duenak ez du maite	42
<i>Nahia Arregi Lasa · Amane Tejeria Acosta</i>	

DBH4
15-16 urte

1. SARIA	
Lurra pixkanaka hiltzen eta gu, zertan?	48
<i>Ainitze Tejeria Tolosa · Naroa Olano González</i>	

2. SARIA	
Lehengo musika, hobe ala ez?	52
<i>Endika Gorriti Gil · Beñat Martin Ulanga</i>	



HARRI
Iraeta Echarri
9 urte
ANOETA

MALAKA ETA JAEK

Orain dela bi mila urte, amerikar mendebaldean, Malaka izeneko indiarra bizi zen. Ez zen edonolako indiarra, umetatik bere txakur Assurrekin ehizatzen joaten baitzen. Gaztea, ausarta eta indartsua zen, ez zuen ezerk beldurtzen.

Baina bakeak gutxi iraun zuen, bakeroek euren lurraldea nahi baitzuten. Gatazka asko izan zituzten. Egun batean, Malaka eta Assurrek, Jaek izeneko bakero gaztearekin topo egin zuten. Malakak oso gustuko zuen toki hura ehizarako. Egunak pasa ahala, Malaka eta Jaekek bertan ikusten zuten elkar egunero. Errezeloz, ziurtasunik gabe begiratzen zioten elkarri. Behin, Jaek bere zaldia garbitzen ari zela, suge pozoitsu bat agertu zitzaion. Halako batean, Malaka azaldu eta sugeari lepoa moztu zion bere aizkoraz. Handik aurrera lagun minak egin ziren. Ez zuten beraien adiskidetasuna ezkututzen, baina familiakoek ez zuten onartzen. Ondorioz, elkarrekin ihes egitea erabaki zuten.

Egunek aurrera egin zuten, beraien herrikideak adiskidetasunaren aurka ezin zutela ezer egin ohartu ziren, eta horrela berriz bueltan onartu behar izan zituzten. Horrek bi herrialdeak adiskidetzea ekarri zuen eta Malaka eta Jaek etxera itzuli ziren.





IRAIDE
Langarica Goya
8 urte
ANOETA

FAMILIA MUSIKARIA

Bazen behin Herriala izeneko herri bat. Han, bazen musikaria zen familia bat. Gurasoak abeslariak ziren, Iradik saxofoia jotzen zuen eta Aiurrek tronpeta. Haurrek egunero-egunero ensaiatzen zuten eta bizilagunak kexu zituzten. “Isildu zaitezte!” “Nazkatu naiz!” eta horrelako itsuskeriak esaten zizkieten. Azkenean, amore eman behar izan zuten.



Baina udaberriaren etorrerarekin batera, ederra gertatu zen, koronabirusa ere etorri baitzen herrira. Koronabirusa Txinatik hona etorri zen birus bat zen. Lantokiak, ikastolak eta leku gehiago itxi zituzten bere eraginez eta, gainera, herritarrek etxean geratu beharra izan zuten. Haurrak etxeko lanak egiten ari zirela, halako batean, zarata bat entzun zuten. Bizilaguna oihuka ari zen instrumentuak jotzeko eskatuz. Orduan, Iradi eta Aiurrek instrumentuak hartu, balkoira irten eta hauek jo zituzten.

Hori ikusita, herritarrak txaloka hasi ziren eta beraiek egunero irtetea pentsatu zuten. Kostata izan bazen ere, behingoz, jendea musikak alaitasuna sortzen zuela konturatu zen. Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Herrialako plazan.





YAIZA

Jimenez Miguez

10 urte

ANOETA

BI UME ESPAZIOAN

Baziren behin Laura eta Oihan izeneko anai-arreba batzuk. Betidanik amestu zuten espazioan bizitzea. Beren aita astronauta zen.

Egun batean, Laurak hau esan zion Oihani:

– Oihan, zer iruditzen zaizu aitari esaten badiogu berarekin espaziora eramateko?

Eta Oihanek erantzun zion:

– Bale, goazen esatera!

Aitarengana korrika joan eta honako hau esan zioten, biek batera:

– Aita, aita, eramango gaituzu zurekin espaziora?

– Barkatu, baina ezin dut, oso txikiak zarete.

– Jo... zurekin joan nahi dugu! Baina, tira, ezin bada, ulertzen dugu.

– Agur, Laura. Agur, Oihan. Espaziora joan behar dut.

Orduan, Laurak honakoa esan zion Oihani:

– Oihan, goazen korrika espazio-ontzira, astronautak irten baino lehen. Hala, bertan sartu eta espaziora joango gara.

– Bale, goazen ba!

Korrika batean, espazio-ontzira abiatu ziren. Laurak botoi bati eman zion, eta espaziorantz aireratu ziren. Laurak esan zuten:

- Goazen espazioko jantziak jaztera!
- Bale, goazen!


Jantziak jarri eta Laura espazioan zeudela konturatu zen. Orduan, zera esan zion Oihani:

- Oihan, espazioan gaude!
- Goazen ilargira!

Ilargira iristean, espazio-ontzitik irten ziren. Konturatu zirenerako, estralurtar bat zegoen beraiekin eta Laura beldurtu egin zen.

- Ai ene, estralurtar bat! Goazen hemendik!
 - FLITZ FLOTZ!! Barkatu eragozpenak, baina zuen laguna izan nahi dut.
 - Tira ba, etorri gurekin Lurrera nahi baduzu.
 - FLITZ FLOTZ!! Bale, goazen.
- Horrela, lagunak egin eta Lurrera joan ziren.





IKER
Iturrioz Aizpun
10 urte
ANOETA

JOXEREN AMETSA




Joxe Anoeta izeneko herri batean bizi zen. Oso mutiko azkarra zen. Gauero, ilargiari begira geratzen zen, oso polita iruditzen zitzaiolako. Gau batean, suziri batekin ilargira iristen zela amestu zuen. Hurrengo egunean, esnatu eta ametsa buruan zuela, suziri bat egitea erabaki zuen.

Kartoiarekin egiten hasi zen, baina hautsi egin zitzaion. Orduan, metalarekin egitea pentsatu zuen. Garbigunera joan, bertatik metala hartu eta suziria egiten hasi zen. Bi astetan egina zuen suziria, oso azkarra baitzen.

Gero, suziria nondik bota pentsatzen hasi zen, eta orduan, mendi-tontoretik botatzea erabaki zuen. Ilargira joan-etorria egiteko zenbat gasolina beharko zuen ere kalkulatu zuen.

Azkenik, dena prest zuela, mendi-tontorrera igo eta suzirian sartu zen. Suziria martxan jarri eta ilargira abiatu zen. Ilargira iristeko gutxi falta zela, meteorito batek jo, suziria puskatu eta lurrera erori zen.

Zorionez bizirik irten zen bidaia azkar hartatik. Orduan, suziritik atera eta bere etxera joan zen. Baina, triste egon beharrean, Joxe konturatu zen garrantzitsuena saiatzea zela eta bakoitzak bere ametsak bete behar dituela.





MARIO
Vieira Caballero
10 urte
IRURA

JIMMI ESPAZIOAN

Bazen behin Jimmi izeneko mutiko bat. Egun batean, Jimmi kalean zegoen, bere lagunekin futbolekin jolasten.

– Pasaaaaa!!! Anttone, hemen! –esan zuen Jimmik, baina ez zion kasurik egin, eta Jimmi haserre joan zen etxera.

– Hau bai bizitza ustela, telebista pixka bat ikusiko dut.

Espazioko pelikula bat ikusten hasi zen, eta orduan, bere amak deitu zion: – Jimmiiiiii!!! Afaltzeraaaaa!!!

Jimmik baietz erantzun zion eta altxa zenean, bat-batean, ziiiiiiiiiiiiuuuuuuunnnnnnnngggggg!! Jimmi espazioan agertu zen. Askor urduritu zen espazioa ikustean, eta une horretan, Jimmik honako hau galdetu zion bere buruari: eta espazioan banago, zergatik ez dut behar kasko espazialik arnasa hartzeko?

– Zer da hau guztia? Planeta bat dago! Hara joaten saiatuko naiz.

Orduan, espazio-ontzi bat aurkitu zuen bidean, eta honako hau esan zuen:

– Abandonatutako espazio-ontzi baten barruan sartuko naiz.

Barrura sartzean, inor ez zegoela ikusi zuen, hezur batzuk bakarrik, eta horrek beldur pixka bat sortu zion gorputzean. Jimmi saltoka hasi zen, baina buelta-erdia eman zuenean, munstro handi bat ikusi zuen. Muns-

troak gosea zuen eta Jimmi jan nahi zuen, baina Jimmi alde batera eta bestera zebilen korrika denbora guztian, eta nahi gabe, botoi bat sakatu zuen. Lur-zati bat erori egin zen, munstroa jarrita zegoen lur-zatia, hain zuzen ere. Une horretan, munstroa espaziora erori zen, eta Jimmi asko poztu zen; saltoka hasi zen, zorte handia izan zuelako. Ez zeuden munstro gehiago, eta Jimmi espazio-ontzia martxan jartzen saiatu zen. Hura martxan jartzen ez jakin arren, hala egitea lortu zuen eta hango planetara joan zen.

Jimmi planeta hartara iritsi zen, baina iritsi zenean, honela esan zuen:

– Zein polita den planeta! Oso polita da, baina ba al dago norbait hemen?

Orduan, estralurtar arraroak iritsi ziren, arma futuristak hartuta. Jimmi beldurtu egin zen; apuntatu egin zioten eta estralurtar batek esan zuen:





– Eeeeeeee, geldik! Laguna izan liteke!

Orduan, Jimmik erantzun zien:

– Laguna naiz! Galdu egin naiz eta ontzia abandonatuta zegoenez, barrura sartu eta martxan jarri da.


Ordurako, honako hau esan zion estralurtarrak:

– Estikulisimiak gara, estralurtar mota bat. Eta zu, nongoa zara?

Jimmik Lurrekoa zela esan zien eta estralurtar guztiak txundituta geratu ziren.

– Lasai mutiko, Lurrera joaten lagunduko dizugu. Nire laguntzaileek espazio-ontzia konponduko dizute. Zure etxera joango zara, lasai. Ni estikulisimi guztien erregea naiz. Planeta honek Alien Fumeta du izena eta hiri honek Meme Land. Hauek dira etxeak – esan zion erregeak.





OIHAN

Sarasola Badiola

11 urte

ANOETA



IURGI

Sanchez Goenaga

11 urte

ANOETA

BADATOR KORONABIRUSA

Kaixo! Koronabirusa naiz. Txinan jaio nintzen eta asko gustatzen zait bidaizatzea. Pertsonen barruan bizi naiz eta hil egiten naiz kanpoan. Pertsona bakar baten barruan aspertu egiten naiz, eta gaizki dauden pertsonak hiltzeko arriskuan jartzen ditut.

Orain pertsona heldu baten barruan nago. Bihotzeko arazoak dituenek, hiltzorian dago, ni bere barruan nagoelako.



Nire ustez, aste bat iraungo du bizirik, hil egingo delako (kar kar!).


Hurrengo egunean, ospitale-
ra iritsi gara. Probak egin diz-
kiote eta, positibo eman due-
nez, ospitaleko gela batera
joan gara inor ez kutsatzeko.
Bost egun igaro dira gela ho-
rretan sartuta gaudenetik eta
zinez aspertuta nago. Norbait
etortzen bada, pertsona horren
barrura jauzi egingo dut!!


Azkenean, gela honetan hamabost egun igaro ondoren, berriro probak egitera goaz. Probetan negatibo eman du eta, atera naizenean, ospitaleko guztiak kutsatu ditut (kar kar!!). Orain, Italiara noa jendea kutsatzera. Jada irten naiz harantz, laster iritsiko naiz.

Bi ordu geroago iritsi naiz Italiara; jende asko dago kalean, nik kutsatu ahal izateko!! Bi ordu igarotzerako ia denak kutsatu ditut. Pertsona bakarra geratzen zait... eta 2 minutu barru... hor dago falta zaidana!!!!

Bat-batean, txakur bat igaro da eta mokadu batez jan nau, haragi-bola bat nintzelakoan. Eta hil egin nau...

Mundu guztia pozik jarri da eta txakurra famatu bihurtu da.





LUAR
Agirre Mujika
11 urte
ANOETA



ENEKO
Ayestaran Odriozola
12 urte
ANOETA

DENBORA GELDIKETA

Kaixo, Manuel naiz, Manu lagunentzat.

Duela 3 urte gertatu zitzaidana kontatuko dizuet.

2009. urtea zen. Ni mutil txiki bat nintzen eta beti berandu iristen nintzen ikastolara.

Behin, ikastolako bidean nindoala, erloju batekin estropezu egin nuen. Ez zen erloju arrunt bat, berezia zen.

Erloju arrunt baten itxura zuen baina... bazuen zerbait ezberdina. Ez zuen lotzekorik eta, eskuan jartzean, itsatsi egiten zen, baina ez nekien zer zuen berezia.

Hurrengo goizean...

Esnatzean, erlojuari begiratu eta konturatu nintzen minutu bat bakarrik falta zela ikastola hasteko. Berehala jantzi eta eskaileretatik behera jaitsi nintzen, korrika. Azken bost eskailerak falta zirenean, soinu bat entzun nuen, eta atzera begiratzean, erlojua erori egin zela konturatu nintzen.

Erlojua hartu bezain laster, etxetik irten eta geldirik ikusi nuen mundu guztia. Orduan, konturatu nintzen erlojuak denbora geldiarazten zuela, eta oso pozik jarri nintzen, nahi nuen lo guztia egingo nuela pentsatu bainuen.

Bat-batean, deabru bat agertu zitzaidan ezkerreko sorbaldan, eta honako hau esan zidan:

– Orain edozer gauza egiteko denbora izango duzu, aprobe-txatu.

– Ez erabili horrela, puskatu egin daiteke eta!! –esan zuen aingeru batek.

– Baina, nor zara zu? –galdetu zuen Manuk.

– Aingeru fidagarria naiz – esan zuen aingeruak– , egin kasu niri.

– Noski, baina zertara etorri zara?

– Lasai.

Deabrua eta aingerua Manuren buru barruan sartu ziren, eta deabruak soka batekin lotu zion gorputza aingeruari, mugitu ezinik utzi arte.

Deabrua Manurengana joan zen, eta honako hau esan zion:

– Aingeruak esan du nahi duena egin dezakegula. Beraz, goazen di-bertitzera.

Denbora pixka bat pasatu ondoren...

Manu aspertu egin zen eta eskolako bidea hartu zuen. Eskolara iris-tean, deabruak hau esan zion:

– Zer egiten ari zara?

– Asper-asper eginda nago. Denbora martxan jarriko dut berriz ere, eta lagunekin jolastuko naiz.





Manuk denbora martxan jartzeko botoiari eman zion, baina ez zen ezer gertatu. Orduan, konturatu zen erlojua puskatu egin zela erortzean, eta oso triste jarri zen.

Une horretan, aingerua atera zen bere gorputzetik.

Honela esan zion:

– Zer gertatzen da? – Galdetu zion aingeruak.

Negarrez erantzun zion.

– Denbora martxan jarri nahi dut, baina ez dut lortzen.

– Ongi da, esan nizun deabruari kasurik ez egiteko.

Aingeruak laguntzea erabaki zuen.

– Zure senitarteko batek ez al zituen erlojuak konpontzen?

– Bai, nire aitonak.

– Ba goazen beregana, ezta?

– Arazo bat dugu.

– Zer arazo?

– Denbora geldirik dagoela.

– Egia da.

Hiru egun igaro zituzten horrela, pentsatzen eta pentsatzen.

Egun batean, aingerua pentsatzen aritu eta gero, gogoratu zen duela urte batzuk beste pertsona bati gauza bera gertatu zitzaiola, eta Juan Mari aztiarena joan zirela.

– Begira, hori da bere etxea.

– Txabola bat?

– Bai, hor bizi da. Goazen barrura.

– Kaixo, gogoratzen zara nitaz, Juan Mari? – Galdetu zion aingeruak.

- Ez, ez naiz gogoratzen. Nor zara?
 - Erlojuarekin lagundu zizuen aingerua naiz.
 - A! Gogoratzen naiz, bai. Zertara etorri zara?
 - Lagun batekin etorri naiz, zuri gertatu zitzaizun gauza bera gertatu baitzaio erlojuarekin.
 - Zer, denbora gelditu duela eta martxan jarri ezin duela?
 - Horixe, bai.
 - Eta zer nahi duzue, laguntzea?
 - Bai, mesedez.
 - Ba denbora martxan jartzeko, 3 osagai behar ditut: emakume baten ile txuri pixka bat, animalia baten azkazala eta polena.
 - Baina nik alergia diot polenari – esan zuen Manuk.
 - Ba denbora martxan jarri nahi baduzu, polen pixka bat behar dugu. Lagunduko dizugu polenarekin, lasai.
- Hurrengo egunean, 3 osagaien bila joan ziren.
- Lehenik eta behin herrira joan ziren, emakume baten bila. Emakume asko zeuden, baina bat bakarrik ile txurikoa, eta ez zuten aurkitzen.
- Orduan, etxeetan begiratzen hasi ziren eta, 3 etxe falta zirela, emakumea aurkitu zuten, bere katu txuriarekin.
- Etxera sartu eta emakumeari ile pixka bat kendu ondoren, hurrengo osagaiaren bila hasi ziren: animalia baten azkazala. Orduan, Manu konturatu zen katuaren azkazala baliagarria izan zitekeela.
- Manu katuarengana joan eta azkazala moztu zion. Beraz, osagarri bat bakarrik falta zitzaien, polena, baina Manuk ezin zuen joan, alergia zuelako. Hori dela eta, txabolako gizona eta aingerua joan ziren polenaren bila.
- Bitartean, Manu gizonaren txabolara joan zen osagaiak bertan uztera



eta gizonari eta aingeruari itxarotera. Txabola ondoan polenez betetako lore bat aurkitu zuen, eta aingeruak eta gizonak, berriz, polenaren arrastorik ere ez.

Orduan, gizonak eta aingeruak txabolara bueltatzea erabaki zuten, eta han aurkitu zuten Manu, lurrean etzanda, seko mareatuta.

– Zer gertatu da, Manu?

– Po... pole... polena – esan zuen Manuk, seko mareatuta.

– Polena, zer?

– Polena hartu dudala eta alergiarekin mareatu egin naizela. Ekarri duzue polena?

– Tamalez, ez dugu ezertxo ere aurkitu.

– Ba hor duzue polenez betetako loreen zelai bat – esan zuen Manuk.

– Bale, goazen hartzera.

– Tira, Juan Mari, hor dituzu hiru osagaiak. Hasi egin behar duzuna egiten.

Juan Mari osagai guztiak nahasten hasi zen eta, ondo nahastean, erlojua eskatu zion Manuri.

– Emadazu erlojua, mesedez.

– Zertarako? – Erantzun zion Manuk.

– Konpontzeko.

Manuk erlojua eman zion. Hark erlojua ireki eta egindako nahasketa sartu zion.

Osagaiekin, erlojua lehertu egin zen eta denbora martxan jarri zen berri ere.

Orduan, honako hau esan zuen Manuk:

– Ikastola!! Ikastolara joan behar dut!!

– Lasai, nik eramango zaitut, nire moto hegalarian – esan zuen Juan Marik.


– Eskerrik asko, Juan Mari – erantzun zion Manuk.

– Hemendik aurrera, esnatu 5 minutu lehenago eta etorri nigana, nik eramango zaitut eta.

Baina, hala ere, Manuk beti bezala jarraitu zuen, berandu jaikitzen eta ikastolara berandu iristen, moto hegalarian joan arren.

ETA HALA BAZAN EDO EZ BAZAN SAR DADILA

MANUREN ERLOJUAN



OINATZ
Errazkin Otamendi
12 urte
ANOETA

AMA LURRAREN HASERREA

Bazen behin, galaxiako izkina batean, Lurra izeneko planeta bat, ni bizi naizen planeta. Gure Ama Lurra oso ederra zen, baina azkenaldian nahiko haserre zegoen gurekin. Duela zenbait urtetatik, gizakia planeta kutsatzen ari zen, etenik gabe. Ama Lurra seinaleak ematen hasi zitzaigun: uholdeak, urakanak, sumendien erupzioak, Ipar eta Hego poloetako izotzaren urtzea... baina guk ez genion jaramonik egin nahi, eta ez ginen gelditu. Kutsatzen jarraitu genuen.

Orduan, Ama Lurrak, haserre, gu geldiarazteko plan bat pentsatu zuen. Koronabirus izeneko birus bat sortu zuen, eta kutsadurarik handiena Txinan zegoenez, hantxe askatu zuen birusa.



Txinara iristean, jende asko eta asko hasi zen kutsatzen. Sintoma ohikoena ez zela, ezta ezta mina, sukarra eta airerik ezaren sententzioa ziren. Normalean, adineko pertsonen edo gaixotasun bat zutenen artean sortzen ziren kasurik larrienak, eta jende asko hasi zen hiltzen. Ospitaleak kolapsatu egin ziren eta berriak egin behar izan zituzten.

Hemen, Euskal Herrian, oso lasai bizi ginen; urrutia ikusten genuen Txina, eta ez genien jaramonik egin gomendioei. Mundu guztian zehar bidaiatzen jarraitu genuen eta... konturatzerako, koronabirusa etxean sartu zitzaigun.

Egun batetik bestera, ikastetxeak itxi eta gobernuak alarma-egoera ezarri zuen. Orain arte telebistan bakarrik ikusi genuen hura bizitzen hasi ginen.

Ezin genuen etxetik irten, aiton-amonak bisitatzera joan edo mendian korrika ibili. Erosketak egitera, txakurra paseatzera edo lanera joateko bakarrik atera gintezkeen. Bestela, ertzainek isunak jartzen zituzten. Balakoira behintzat atera gintezkeen, eguzkia hartzera edo meriendatzera.

Ama Lurra, aldiz, poz-pozik zegoen; izan ere, lehen milaka eta milaka abioi izaten zituen zeruan, eta orain txoriak bakarrik ikus zitezkeen, eta haien txio-txioak entzun zitezkeen berriz ere. Errepideetan auto gutxiago zeuden, enpresetako tximiniek ke gutxiago botatzen zuten... Kutsadura asko jaitsi zen. Natura berriz ere indarra hartzen ari zen. Animaliak ere herrietara jaisten hasi ziren, kaleak hutsik ikustean.

Guk erronka handi bat genuen: guztion artean koronabirusari aurre egitea.

Horretarako, denok etxean geratu ginen, agintarien aholkuei jarraituz.

Osasun-langileak goiz, arratsalde eta gau jardun zuten lanean, gaixoak sendatzen. Janari-dendetako langileei esker, ez zitzaigun jatekorik falta.

Horrela, denon laguntzarekin, koronabirusari borroka irabazi genion.



Eta iritsi zen etxetik ateratzeko ordua. Gure begiek udaberriaren edertasuna ikusi zuten, milaka lore zelaietan, tximeleta eta txoriak non-nahi, eta aire garbia arnastu genuen.

Oraingoan ere lezio ederra eman digu Ama Lurrak. Ea, aurrerantzean, Ama Lurra zaintzen ikasten dugun.






ENARA

Odriozola Uzcudun

13 urte

ANOETA


NIRE EGUNEROKOA






JUNE
Martin Ulanga
13 urte
ANOETA

EGUN BATEKO NEGARRA BETIKO POZA



**ANE****Otaegi Etxenagusia**14 urte
ANOETA**NEREA****Telleria Ormazabal**13 urte
ANOETA

ZUEKIN HARREMANETAN

LONDRES, 2012ko urriaren 18a

Guraso maiteak:

Dakizuen bezala, Londresen nago. Hemen ondo dago dena, eskerrik asko galdetzeagatik eta nirekin harremanetan jartzeagatik (ironia da).


Oraindik ez dut ulertzen zergatik bidali ninduzuen hona; ez dut uste horren gaizki portatu naizenik, tortura honetan sartu behar izateko. Gauzak gaizki egiten badituzu, jo egiten zaituzte, eta hori ez da bidezkoa! Ez zait egokia iruditzen eroetxe honetan sartzea. Tratu txarrak besterik ez dizkigute egiten eta alabarik gabe geratuko zarete. Hemen hilko naute!

Ez da bidezkoa, nerabea izate hutsagatik eta estereotipoetan oinarritutako iritzi bat izateagatik, infernu honetan sartzea. Zuen alaba bakarra horrela tratatzeko gai zarete? Ikusita dago nitaz libratu nahi duzuela.

Lotsagarria iruditzen zait nirekin harremanetan ez jartzea. Zuen alaba izanda, ez zait horrenbesterako iruditzen gutxienez bizi-seinaleren bat ematea; baina, ikusten denez, zuentzat bai.

Gaztea izatea (zuen ustez) bakarrik parrandan ateratzea da, gurasoei kasurik ez egitea, nahi duguna egitea...

Baina ez, ni gauzak ondo egiten saiatu naiz, eta zuek “zoroetxe” honetan sartu nauzue.



Hamaika ikusteko jaiok gara!

Mesedez, hemendik ateratzeko eskatzen dizuet. Ezin dut horrela bizi: zuek horren pozik etxean, eta ni hemen, sufritzen. Ez da justua. Hemen etxean baino oihu gehiago egiten didate, eta ez da erraza, ezinezkoa zela uste nuen...

Ni lehen zoriontsu nintzen, bizitza ederra, lagun ederrak... nituen.

Ados, egun guztia zuekin kexan, garrasika... baina jar zaitezte nire lekuan, egia esan, ez nuen oso gustuko zuek horrela ikustea, haserre, aurpegi horiekin... Zuen artean ere ez zarete ongi konpontzen.

Bikoteak ezin badu elkar ikusi, nola nahi duzue alabarekin ondo konpontzea? Arazoa ez dut nik, baizik eta zuek. Inoiz pentsatu al duzue hori? Nitaz aparte, zuen arteko harremana birplanteatu beharko zenuketeela uste dut.

Zuekin dena arazoak ziren, beno, denak ez. Txikitan oso pozik bizi nintzen, nire lagunekin geratzen nintzenean parkean ondo pasatzeko, txirristatik jaisteko edota kolunpioan ibiltzeko, edo gaixo jartzen nintzenean amona Mirenen etxera joaten ginenean berak ni zaintzeko edota zoorra joaten ginenean ere lehengusuekin. Ah! eta gogoratzen zarete nire urtebetzetako festetaz? Ederrak ziren! Horiek ziren momentuak, horiek... Baina, badakizue, nerabe bihurtzerakoan dena korapilatzen hasten da, baina dirudienez zuek ez duzue ulertu nahi, zuek aukeratu duzuen bidea, (errezena zena, noski) niri zuen bizitzetatik kanpo uztea izan da!

Nik ez zaituztet oroitzen txar bat bezela gorde nahi, baina ia ezinezkoa egiten zait. Pasa ditugun momentu "politt" guztien ondoren, hau egitea... etsigarria iruditzen zait.

Nitaz harro egon beharko zenukete, zuengatik sakrifikatu behar izan dudan guztia? Hori ez duzuela ikusten nabari da. Aurpegiatzen zenizkidaten gauza guztiak, guztiak txarrak, negatiboak, ez duzue aitortzen egin ditudan gauza onak. Eta jakin horrek mintzen nauela.





Ezin dut sinistu oraindik, benetan.

Hemendik ateratzerakoan dena lehen bezela izatea gustatuko litzaidake, nahiz eta oso zaila ikusi. Nik zuekin konfidantza izan nahi dut, maite nahi zaituztet, eta nik ere maitatua sentitu nahiko nuke.

Damua ikustea gustatuko litzaidake zuen partetik ere.

Mesedez, zentzudunak izan eta zuen akatsak aitortu.

Ikusiarte!

Zuen alaba, Leia.



NAHIA
Gorriti Gil
13 urte
IRURA



EKHIÑE
Iturbe Elola
13 urte
IRURA


GURASO AGURGARRIAK

Iruran, 2020ko martxoaren 28an

Azkenaldian, gazteok askotan entzun dugu oso alperrak garela eta egun osoa mugikorrarekin edo bestelako gailu elektronikoekin pasatzen dugula, baina hori egia ez dela esatera etorri gara.

Guk, gazteok, askotan entzun dugu zuen ahotik mugikorrarekin edo beste gailu elektroniko batzuekin pasatzen dugula eguna. Erabat ados nago gailu horiek erabiltzen ditugula esatean, baina ez denbora guztian. Gainera, ikastolako gauzak egiteko, azterketetarako ikasteko, etxeko lanak egiteko... erabiltzen ditugu. Eta hori gutxi balitz, etxeko lanetan ere laguntzen dugu.

Gure gurasoak guri buruz (gazteoi buruz) gaizki hitz egiten hasen direnean, batzuetan, gaizki sentiarazten gaituzte. Beraien ustez, denbora gehiegi igarotzen





dugu horrelako tramankuluekin. Gainera, pentsatzen dute jolasteko edo horrelako gauzetarako bakarrik erabiltzen ditugula, eta gehienetan, lagunekin komunikatzeko erabiltzen ditugu.

Askotan entzun dugu kirolik egiten ez dugula. Ni ez nago ados horrekin. Ez dugu alperrarena egiten eta kirola egitera ateratzen gara. Ados nago hein batean; gazte guztiek ez dugu kirola egiten ikastolatik kanpo, ez baita guztioi gustatzen zaigun zerbait, baina gazte gehienak kirolariak gara eta eskolaz kanpoko ekintzetara joaten gara kirola egitera. Gainera, kirol gehienetan bi edo hiru entrenamendu izaten ditugu astean. Hori gutxi balitz, asteburuetan partiduak izaten ditugu kirol gehienetan. Beraz, ondoriozta dezakegu gazte gehienok hiru edo lau egunetan egiten dugula kirola eskolaz kanpo, eta ez hori bakarrik, ikastolan ere astean bi orduz izaten dugu soinketa.



Hitz gutxitan esanda, gazteak ez gara alperrak eta ez dugu pasatzen eguna etxean sartuta; kirola egitera ateratzen gara.

Behin baino gehiagotan entzun dugu, arazoren bat dugunean, gurasoei ezertxo ere esaten ez diegula. Ikastolan zer moduz edo horrelako zerbait galdetzen digutenean, guk beti ondo esaten diegula, zerbait gertatzen bada, gurasoek nola erantzungo duten edo zer esango diguten ez dakigulako. Ados nago horrekin, batzuetan ez baitiegu ezer esaten, nola erantzungo duten beldur garelako. Bestalde, gazte batzuek inolako arazorik gabe kontatzen dizkiete gurasoei gertatutako pasarteak.

Nire iritzia kontuan izango duzuelakoan, zuen alaba.





MIKEL
Otermin Pagola
15 urte
ANOETA



ALAIN
Filipe Etxabe
14 urte
IRURA

ITXAROPEN HONDORATUA

Imanol naiz. Gizon independentea. Begi berde, azal ilun eta ile beltzkoa. Bakarrik bizi naiz eta ezkongabea naiz oraindik. Ez naiz oso altua, baina ez naiz horren kexu. Nire hankako neurria 41 da, ez naiz inoiz izan hanka handiko mutila. Aurrez aipatutako gauza batzuek ez dute zentzurik, bai, jabetu naiz. Nire hirugarren eguna da. Nike zapatila zahar batzuk eta ostraz beteriko 4 m²-ko harri bat bakarrik dut oinen azpian. Eguzkiak sortutako erredurez beteta dut gorputz osoa. Ondoan, hezetasunez jositako mugikor bat eta galtzerdi busti pare bat, lehortzen jarrita. Lauzpa-bost sagar eta litroko botila bat ur beroarekin beteta. Honek guztiak badu azalpen bat, batzuentzat sinesgaitza agian. Egia esan, duela 5 egun oso gustura nengoen ohean etzanda, bezperan sobera geratutako pizza zatiak jaten... Ezin da ukatu bizitzak aldaketak izaten dituela. Egin dezagun bispahiru egun atzera nire istorioa zuekin partekatzeko.

Ostiralean goizeko 5etan esnatu nintzen, gosez amorratuta, nekatuta eta apenas bizitzeko gogorik gabe. Ordu txiki haietan kotxea gidatzen hastea... ez zen izan ideiarik onena. Kostata iritsi nintzen Bakioko kostara. Bertan nuen nire 179.000 €-ko txalupa edo yatea. Arrantza egitea eta arrantzatutako arrainekin bazkaltzea zen nire ideia, ardo goxo batek lagunduta, eta gero siesta pixka bat egitea. Ur sakonera joan nintzen arrantzatzerara, baina zoritxarrez, txalupari zulo bat egin zitzaion beheko

zatian. Txalupa hondoratzen hasi zen eta, desesperazioak jota, ahalik eta jaki gehien eskuartean hartu eta, igeri, arroka baten gainera iristea lortu nuen. 1.047 ostraz estalitako harri baten gainean jarri nintzen, zain.

Onartu behar dut lehen 10 orduetan itxaropena banuela, baina gaua iritsi ahala, nire txaluparekin batera hondoratu ziren nire itxaropen guztiak. Izugarri luzeak egin zitzaizkidan orduak, eta 24 aldiz luzeagoak egunak. Arrainak zenbatzea zen jokorik dibertigarriena; pentsa ezazue zer nolako desesperazioa nuen horretan jolasteko.

Gogoan dut lehenengo eguneko gaua: hoztuta, lo egin ezinik. Itsasoa nahiko harro zegoen, eta noizbehinka, itsasoko urak busti egiten ninduen. Egunez, gaua noiz iritsiko zain egoten nintzen, eta gaez, eguna iristeko irrikaz.





Halako batean, eguna iritsi zen. Goizeko 7ak ziren. Goizeko lehen orduetan gustura egoten nintzen. Denbora pasa ahala, eguzkiak indar gehiagorekin jotzen zuen, baina ez zen beroa arazoa. Arazoa burukoa zen! Momentu batzuk geroago konturatu nintzen zein zen arazoa: desesperazioa besterik ez nuen barruan eta, horri aurre egiteko, yoga-saio bat egitea bururatu zitzaidan, lasaitzeko, itsasoko olatuen hauste-hotsak lagunduta erlaxatzeko. Izugarri baretu nintzen eta gauzak beste ikuspegi batetik ikusten hasi nintzen. Horren ondoren, arrantzale baten plastikozko sare bat gerturatu zen nire “uharte” txikira. Gero, botila bat, eta geroxea-go, koka-kola freskagarriak lotzeko plastiko deformagarri horietako sare mordo bat. Aipatu ditudan hondakin horiek guztiek zerbaiterako balio al zidaten? Ez. Nik ere ez dakit zergatik hartu nituen; zerbaiterako beharko nituela pentsatzen nuelako agian... Beno, behintzat plastikoa atera nuen itsasotik.

Oso arratsalde aspergarria izan zen hura; arrainak harrapatzen saiatu nintzen, baina ezertxo ere ez. Gero (gaua iristear zegoela), arrantzale baten itsasontzi bat igaro zen nire uharte txikitik kilometro batera gutxi gorabehera. Itsasontziaren arreta erakartzen saiatu nintzen, baina arrainekin bezala, ezertxo ere ez. Beste gau luze bat igaro beharko nuela pentsatzen hasi nintzen. Esango nuke bai, luzea! Ez nuen lortu begiak ixtea, lur jota egon arren. Barruko tentsioak eta egonezinak hil egingo ninduela sentitzen nuen denbora guztian. Gainera, zauri asko egiten nituen ostra madarikatu haiekin. Bi oinak zauriz eta minez josita nituen.

Gaur goizean (hirugarren eguna), arrain txiki bat arrantzatzea lortu dut, aurreko egunean itsasotik jasotako plastikozko hondakinak sare gisa erabiliz. Arraina bizirik eta gordinik jan dut. Lehenengo tripak kendu dizkiot, koska handiak eginez. Gero, uretan zertxobait garbitu eta... barrura. Egia esan, ez du oso zapore ona. Berdela dela ondorioztatu dut, azaleko kolore berdeagatik, baina ez nago guztiz ziur, ez bainaiz oso trebea arrantzan. Dena den, ez da ingeniaria izan behar hori jakiteko, nahikoa da ezagutza gutxi batzuk izatea...

Eta hori izan da hona ekarri nauen istorioa. Argi dago horrelako gauzak niri bakarrik gertatzen zaizkidala... Zuek etxean, ikastolan, liburutegian edo beste edozein lekutan zaudeten bitartean, nik hementxe jarraituko dut bizi naizen heinean, laguntza bila, azken egunetan ibili naizen bezala. Hau irakurtzen duzuen lehengo pertsonetako bat bazara, laguntza eska dezazun eskatzen dizut, ezin baitut gehiago iraun arroka zahar honen gainean. Zorte on zuen bizitzan eta kontuz ibili itsasontziekin eta, nola ez, itsasoarekin!

(Istoria idatzita dagoen paper bustia botilaren barruan sartu eta itsasora bota du).





NAHIA
Arregi Lasa
15 urte
IRURA



AMANE
Tejeria Acosta
15 urte
IRURA

MIN EGITEN DUENAK EZ DU MAITE

- Zu ikusteko irrikan nago.
- Baita ni ere.
- Aste honetan libre zaude?

Hau izan zen Arantxak bidali zidan azken mezua. Dagoeneko denbora daramat haren berririk izan gabe, 50 minutu inguru, eta kezkatzen ari naiz. Dagoeneko maite ez nauela uste dut. Nire lagunek askotan esaten didate paranoiak egiten ditudala. Baina nik berehala erantzuten dudanez, niri ere azkar erantzutea gustatzen zait.

20 minutu igaro dira eta erantzun gabe jarraitzen du. Ziurrenik beste batekin hitz egiten arituko da, edo agian atzera egin du, baina hobe horretan ez pentsatzea.

Erantzuna jaso dut, eta aste honetan ikasi egin behar duela esan dit, asko sentitu arren. Hainbat azterketa omen ditu: historiakoa, filosofiakoa eta literaturakoa. Baina ez dakit guztiz sinistu ala ez; izan ere, zientziak utzi egin dituela ikusi dut bere sare sozialetan. Gaur goizean Instagramera bere txakurrarekin igo duen argazkia ikusi dut eta bere lagun batek idatzitako iruzkina –Albaitaria izateko prestatuta zaude!– irakurri dut. Hori ez dator bat berak esandakoarekin. Beste aste bat igaro beharko dut

bera ikusi gabe, ez dakit gehiago elkar ikusiko dugun. Beti aitzakiak jarzen ari da. Aurrekoan, lagunekin geratu behar zuela esan zidan. Ez dut bideragarria ikusten harreman hau aurrera eraman nahi badu.

Astelehena da, arratsaldeko 6ak. Beste zereginik ez dudanez, Arantxari deitzea pentsatu dut. Baina elkarrizketak ez du asko iraun. Ikasgelan zegoela erantzun dit, lan bat bukatzen. Beranduxeago deituko didala. Baina bere lagun minaren sare sozialetan ikusi dut ondoko tabernan zeudela zerbait hartzen. Izan ere, eskolak 14:00etan bukatzen dira. Oso haserre nago. Ez dut horrenbeste gezur esateko arrazoirik aurkitzen. Edo agian bai. Agian beste mutil bat du gustuko.

Azken aukera emango diot. Berehala ikusten ez bagara, bere argazki pribatuenak zabalduko ditudala mehatxu egingo diot. Ez dut hori egitea pentsatzen, baina kasu egiteko aukera bakarrenetakoa da. Nire lagunek esan didate beti lortzen dela helburua. Hala ere, nik ere bidali dizkiot nire argazki intimoak eta berak ere badu horiek zabaltzeko aukera. Baina tira, ez dut uste gai izango denik. Neskak ez dira horrelakoak.

Gaua da eta oraindik ez dit deitu. Nik deitzea erabaki dut. Ez duenez erantzuten, behin eta berriz deitzea bururatu zait, horrela beldurtu egingo baita. kontaktu desberdinen bidez, bere gurasoen etxeko telefono-zenbakia lortu dut, baina etxean ez dagoela erantzun didate, bihar jai dutela eta bere lagunekin afaltzera joan dela.

Snapchat bidezko kokalekuarekin lokalizatu dut eta bere bila joatea pentsatu dut. Sorpresa bat emango diot, eta aldi berean, lotsagarri utziko dut bere lagunaren aurrean. Lezio bat merezi du eta.

Jatetxearen aurrean nago; ez dirudi oso garestia. Ogitarteko bana jaten ari dira. Bakoitza bere edariarekin. Gustura dabiltzala dirudi, baina hori laster bukatuko da. Sartu egingo naiz. Beraien harridura aurpegia ikusi dut, baina noski, normala da, ez naute ezagutzen.

Beraien mahaira hurbildu eta trago bat edan dut nire neskaren edalontzitik. Beno, ez da nire neska, baina laster izango da. Bere lagunak lehen baino harrituagoak daude, eta batek alde egiteko eskatu dit. Nik, kezka-



tuta, nire berririk ez ote duten galdetu diet, eta beraien erantzuna ezezkoa izan da, beraiek mutil gazteago bat espero zutelako. Gorritu egin da, urduri dagoela dirudi.

Kanpora irteteko proposamena egin diot, bertan lasaiago hitz egiteko, baina bere lagunek galarazi egin diote.

Nire estrategia erabiltzeko momentu aproposa iruditu zait. Eta garrasi egin dut: NIREKIN ETORTZEN EZ BAZARA, ZURE ARGAZKI PRIBATUAK ZABALDUKO DITUT!

Urduri jarri da eta lagunek, kezkatuta, nirekin joateko esan diote, baina deseroso sentituz gero, beraiekin harremanetan jartzeko.

Indarrez, kanpora atera eta ezagutzen nauen galdetu diot. Kezkatuta, baietz esan dit. Suposatzen duela nor naizen. Lur jota utzi nau bere ligearen aita ote naizen galdetu didanean. Bere aita? Zaplazteko bat merezi du. Horren oldarkorra ez izateko, ostikada bat bakarrik joko diot. Hurrengorako ikas dezan.

Ni Felix naizela esan diot. Bere etorkizuneko mutil-laguna. Denbora guzti honetan, mutil gazte baten itxurak egiten aritu naizela azaldu diot. Baina zentzuzko arrazoi bat erabiliz: urteak daramatzat neska-laguna bilatzen eta, nire adinagatik, gazte guztiek alboratu egiten naute. Hitz egiten ari nintzen bitartean, lagunei deitzen ari zela konturatu naiz. Amorratuta, mugikorra hartu eta nire poltsikoan sartu dut. Dardarka hasi da, eta lasaitzeko muxu bat eman diot. Bera alboratu egin da. Oraingoan bai, zaplazteko bat eman diot. Iruditzen zait ez duela orain arte egin dudan esfortzua baloratzen. Getxotik Santurtzira etorri naiz goizeko ordu txikietan, soilik bera ikusteko. Baina tira... horrelakoak dira neskak.

Esnatzean, mezu bat jaso dut mugikorrean. Ez zen bera. Profileko argazkiko neska ezaguna egiten zitzaidan. Zein den galdetu diot. Arantxaren lagun hoberena dela erantzun dit eta esan dit asko kezkatzen dion gai baten inguruan hitz egiteko idatzi didala. Dirudienez, atzo gauen ondoez nabaritu zuten laguna, nirekin elkartu eta gero. Ez dakite zergatik, baina suposatu dute, agian, gauzak ez zirela espero bezain ondo joango.

Nik ezetz erantzun diot, ez naizela bere egoeraren erantzule, eta horrenbesteko konfiantza badute, bere lagunari galdetzeko. Berehala amaitu dut elkarrizketa. Ez dut neska horretaz ezer gehiago jakin nahi.

Gaur lagunekin geratu naiz, 19:00etan, plazako tabernan zerbait hartu eta, aspaldiko partez, elkarrekin hitz egiteko. Azkenaldi honetan ez dut beraiekin egoteko denborarik izan. Esan diet neska batekin nabilela, eta xehetasun gehiago eskatu dizkidate. Baina oraindik bikote ofiziala ez gara kontaktuko diet, gauza asko gertatu direla.

Garaiz iritsi naiz eta bakar-bakarrik nago tabernan. 19:05ak dira eta oraindik ez da inor agertu. Baina ohituta nago, ez dira inoiz izan puntualak. Lehenengoa iritsi da, eta pixkanaka, gainerakoak etortzen hasi dira. Mahaiaren inguruan eseri eta garagardo bana eskatu dugu. Batek izan ezik. Beti izan da nahiko berezia; ez dut oso gogoko. Egia esan, ez gara inoiz eman oso ondo.

Azken egun hauetan gertatu zaidana kontatzen hasi naiz. Bazekiten neska bat ezagutu nuela, baina bere bila joateko erabakia nik hartu nuen. Izugarrizko pozarekin kontatzen hasi naiz. *Bere kokalekua lortu eta lagunekin afaltzen ari zen tabernan azaldu nintzen, sorpresa bat eman nahian. Harrituta geratu zen nire adina ezagutzean, baina dena azaldu nion eta oso ondo ulertu zuen. Nirekin joateko mehatxu egin nion, zuek erakutsi bezala. Azkenik, musu bat eman nion. Eta zaplazteko bat ere bai, baina txikia, nirekin zegoen bitartean lagunekin hitz egiten ari zelako.* Nire lagunek oso erreakzio ona izan dute. Batek “Ondo egina, Felix!” esan dit. Beste batek, berriz, “Hori da neskak konkistatzeko modua!”, eta azkenik, Hugok, “Earra, Felix, gure aholkuei kasu egiten!”. Baina denek ez dute berdin erantzun. Jonek, garagardoa edaten ez duen mutil gizajoak, hori tratu txarra dela esan dit, eta neskak, haserretu egiten bada eta tabernako kameretan probak badaude, bortxaketa gisa salatu dezakeela. Kontu handiz ibiltzeko.

Egia esan, ez dakit zergatik dagoen mutil hori gure kuadrillan. Izan ere, denei neskak gustatzen zaizkigu eta berari mutilak. Ez ditu gu denon gustu berdinak. Neskez hitz egiten dugunean, beti aurka egiten digu. Pasatu egiten gara esaten du behin eta berriz.



Bat-batean, Arantxak mezu bat bidali dit. Oso luzea da eta ozen irakurri dut:

“Kaixo, Felix!

Denboraldi honetan zehar oso gustura egon naiz zurekin hitz egiten. Baina nire lagunek eta nik pentsatzen genuen beste modu batekoa zinela.

Atzo gauekoa ez zen izan oso atsegina. Nire lagunekin afaltzera joan nintzen, eta ondo pasatu nahi nuen beraiekin. Zu azaldu zinen arte. Non nengoen nola jakin ote zenuen galdetzen diogu geure buruari, baina hori beste baterako utziko dugu. Hori txorakeria bat iruditzen zaigulako; izan ere, gaur egun modu asko daude hori jakiteko. Gehien kezkatzen gaituena da zergatik etorri zinen, zergatik behartu ninduzun nik nahi ez nuen zerbait egitera. Nik dena kontatu diet nire lagunei, eta zu salatzea pentsatzen ari gara, tabernako jabeari gau hartako bideoak eskatuta. Gainera, gordeta dago nire lagunarekin izan zenuen elkarrizketa. Berak bazekien gertatutako guztia, eta ez jakitearen itxurak egin zituen zuk zerbait esateko, baina ez. Gezurti bat zara. Beste alde batetik, jendea ezagutzeko aplikazioetan zure benetako identitatea ipintzea gomendatzen dizut, jendeak izugarritzko sorpresak har ditzakeelako. Niri gertatu zaidan moduan. Ez dut ezer gehiago jakin nahi zutaz, eta errespetu guztiarekin, bakean uztea eskatzen dizut. Oso gaizki pasatzen aritu naiz denbora honetan zehar, ni kontrolatzen, mehatxatzen eta lotsagarri uzten saiatu baitzara. Baina nik gustuko nuen argazkiko mutila, eta beraz, pasatzen utzi nuen. Ez nuen inongo aitzakiarik jarri zu ez ikusteko, zuk uste bezala. Jakin ezazu nik ere nire bizitza dudala eta ez zarela gertatzen den guztiaren muina”.

Amaitzean, denok barrez lehertzen hasi gara. Salatu egingo duela... jo egingo banu bezala... Pixka bat agian bai, baina ez zen horrenbes-

teko izan. Ez nion minik egin. Orduan irribarrea kendu zait aurpegitik, poli-ziarengana joateko zentzuzko arrazo- bat baduela konturatu bainaiz. Ez dut lagun-en aurrean koldarra izan nahi; erantzun bat eman eta barkamena es- katu nahi diot. Beraz, bihar lanera joan behar dudala esan diet, bertatik alde egiteko. Etxerako bidean, zer esan pentsatzen aritu naiz. Eta berehala, gure harremana berreskuratzeko irten- bide bat etorri zait burura. Bere etxera joango naiz.

Urduri nago, ez dakit nola erantzun- go duen. Gaurkoan ez dut indarririk era- biliko. Tira, agian poliziari ezer ez esa- teko mehatxu egingo diot. Iritsi naiz bere etxe parera eta gizon bat irten da balkoira. Bertatik berehala alde egiten ez badut, Ertzaintzara deituko duela esan dit. Korrika, beldurtuta, kotxera joan naiz.

Dagoeneko 25 urte pasa dira egun hartatik. Gaur egun, alaba bat dut. Bizitzan gehien maite dudana pertsona da eta ez dut nire alaba horrela- ko tratatu txarrak jasaten imajinatu ere egin nahi, Arantxak eta, tamalez, beste neska askok bezala. Denbora igaro ahala, konturatu naiz min egi- ten duenak ez duela maite. Nire inguruan ondo ikusita zegoen neskekin horrelako tratatuak izatea, eta nik guztiz normalizatuta nuen. Zorionez, ho- rrenbeste min egiten zidaten lagun haiez urrundu naiz. Orain Jon da nire lagunik onena. Gaur egungo gaztetxo-en jarrera guztiz kontrakoa izatea espero dut. Alde batetik, alaba bat dudalako, eta bestetik, horrek eragin ditzakeen arazoez jabetu naizelako.





ANITZE
Tejeria Tolosa
16 urte
ANOETA



NAROA
Olano González
16 urte
HERNIALDE

LURRA PIXKANAKA HILTZEN ETA GU, ZERTAN?

Duela zenbait urtetatik, *klima-aldaketa* deitzen hasi zen hura *klima-larrialdi* bihurtu da. Azken urte hauetan egunero hitz egiten da gai honen inguruan. Telebistan, irratian nahiz sare sozialetan ikus eta entzun ditza-kegu hari buruzko albisteak, kezak... Gaiari buruz hitz egiten denean, kezkatu egiten gaituela dirudi, baina aldaketak egiteko ordua iristen de- nean, inork ez du ipurdia mugitzen edota ohiturarik aldatzen. Harrigarria da. Asko hitz egiten dugu, loroak bezala, baina gauzak aldatzeko ordua iristen denean, ez dugu ezer egiten.

Gure bizilekua den lurra suntsitzen ari gara gure “onerako”, gure burua- rengan bakarrik pentsatzen dugulako. Mundua aldatzen hasteko beharra sentitzen dugu, baina ezer egiten ez badugu, egoerak okerrera egiten ja- rraituko du. Jende asko sutan jartzen da larrialdi klimatologiko honen au- rrean hartzen diren erabaki eta aldaketa eskasak direla eta. Horren adibi- de dugu Greta Thunberg suediarrek sortu eta mundu osora zabaldu duen *Fridays For Future* mugimendua. Nazioarteko ikasle-mugimendu bat da, bost kontinenteetan grebak eta manifestazioak antolatzen dituen, jen- dea aldaketa klimatikoaren eta planetako berotze globalaren mehatxuaz kontzientziatzeko, eta politikariei horren aurkako neurri eraginkorrak har ditzatela eskatzeko. Aurten inoiz baino protesta jendetsuagoak egin di- tuzte Europako hainbat hiritan, eta protesta gehiago daude iragarrita.

Egia da ohiturak aldatzea zaila izan daitekeela. Nahiago dugu erositasuna, eta horregatik, biderik errazena aukeratzen dugu aldaketak egin beharrean. Beti esaten dugu garraio publikoa gehiago erabiltzen hasi behar dugula, baina esandakoa praktikan jartzean, bakoitzak bere garraio pribatua erabiltzen du gehienetan. Aldaketak pertsonak bakarrik eginez gero, ezertxo ere aldatuko ez dela pentsatzen dugu, eta kutsatzen jarraitzen dugu. Berotegi-efektuko gasen erabilera jaisten ez bada, horrek ondorio larriak izan ditzake. Gas horien % 79 energia sortzeko edo garraioa erabiltzeko erretzen diren erregaietatik sortzen dira. Horrekin, lehen esandakoa frogatzen dut, hau da, gure bizi-ohiturak aldatu beharko genituzkeela, aldaketa nabarmenak eginez.

Munduko tenperatura asko aldatu da urte hauetan, eta tenperaturak gero eta altuagoak dira. Nahikoa da leihotik begiratzea horretaz jabetzeko. Gainera, tenperatura-igoerak aldaketak eragingo ditu urtaroen iraupenean. Bestalde, graduen igoera kalteak eragingo ditu, hala nola, nekazaritzan eta landaredian, gero eta euri gutxiago egiten baitu. Euria egiten duenean, euriteak bortitzagoak dira, eta beraz, uholdeen kopurua handitu egingo da, baita eragindako kalteak ere. Horri buruzko albiste ikaragarriak ikusi ditugu.





Azken hilabeteetan sute handiak izan dira; Australian, adibidez, 10 milioi hektarea erre dira. Berote handiek suteak gertatzeko arriskua handitzen dute eta hor dugu horren adibideetako bat.

Temperatura-aldaketaren ondorioz, animalia-espezie asko haien gaur egungo klima nola desagertzen ari den ikusten ari dira, baina ezin dira horren azkar egokitu aldaketa horietara. Hala, hartz zuri asko itota hiltzen ari dira, icebergetara iristen ez direlako; era berean, hegazti migratzaileak emigratzeko gaitasuna galtzen ari dira, ohituta dauden temperatura-fluxuei jarraitu ezinik. Bestalde, Antartikako pinguinoen kolonia batzuk % 77 murriztu direla ohartarazi du Greenpeacek. 1971an egindako zenbaketa batean, Elefante uhartean 122.550 pinguino-bikote zebatu zituzten. Uharte berean egindako azken zenbaketan, berriz, 52.786 bikote bakarrik zenbatu zituzten.

Asko kezkatzen gaituen beste gai bat itsas mailaren igoera da. Esaten dutenez, azken urteetan 5 mm igo da itsas maila eta, hemendik urte batzuetara, kostaldeko herrien eremu batzuk ur azpian geratuko dira. Horren ondorioz, Indonesiako eta Maldivetako uharte batzuk desagertzen hasi dira. Horrez gain, Sumatra hegoaldeko bi uharte txiki galdu egin dira itsasoan, eta beste lau urperatzen hasi dira dagoeneko. Beste ondorio batzuk ere izan ditzake. Ozeanoetako uraren zirkulazio-ereduak aldatu edo ekosistema horietan bizirik dirauten flora- eta fauna-espezieak mehatxuan jar daitezke, besteak beste.

Bestetik, Europa hegotik iparrera astindu duen bero-boladak bete-betean jo du Groenlandia ere, eta horrek inoizko urterik bortitzenetako bat eragin du hango izotzetan. Adituen arabera, 40.000 milioi tona izotz urtu ditu bost eguneko beroaldiak, eta horrek 0,11 milimetro igo du itsas maila. Uztailean, 200.000 milioi tona izotz urtu dira Groenlandian, eta mundu osoko itsasoan maila 0,5 milimetro igo da. Egun bakar batean, abuztuaren 1ean, 11.000 milioi tona izotz urtu ziren. Zientzialariek 2050erako aurreikusitako hipotesiak 2019ko udan gertatzen ari dira, eta zenbait adituk uste dute, agian, berotze globala uste baino azkarrago gertatzen ari dela.

Emandako arrazoi guztiengatik, uste dugu egoera honi buelta ematen hasteko garaia iritsi dela, berandu izan baino lehen, aldaketak egiten hasi behar dugulako.





ENDIKA
Gorriti Gil
15 urte
IRURA




BEÑAT
Martin Ulanga
15 urte
ANOETA

LEHENGO MUSIKA, HOBEA ALA EZ?

Gure ustez askoz hobea da orain dela urte batzuetako musika: The Beatles, Queen, Green Day, Rolling Stones... Izan ere, musikari horiek influentzia gisa jardun dute oraingo musikari askorentzat.

Gure ustez, orain dela urte batzuetako musika askoz hobea zen, honako arrazoi hauengatik: hasteko, artista gutxi batzuek egiten zutelako, hau



da, lehen Internetik ez zegoenez, askoz zailagoa zelako famatu bihurtzea, ezin baitzen famarik lortu diskoetxe baten laguntzarik gabe. Beraz, artista gutxi horiek oso onak izaten ziren. Queen taldea, adibidez, herri pila batetan ibili zen fama lortu arte, beste talde asko bezala.

Gainera, kantak askoz pertsonalagoak izaten ziren, eta askotan, beraien inguruko ekintzak kontatzen zituzten. The Beatles taldearen kanta batzuk, esaterako, Liverpool (beraien hiria) inguruan daude idatzita.

Bestalde, lehengo taldeek dohain bat izaten zuten, eta horregatik ziren ikaragarriak. Denak ziren onak; abeslariak, adibidez, prodijioak izaten ziren, edo zerbait berezia izaten zuten. Dohain edo berezitasun horrek beste abeslari eta taldeetatik bereizten laguntzen zien.

Egia da oraingo musika askoz ere zalapartatsuagoa dela, baina lehengoak sentimendua zuen, mezuak bidaltzen zizkien entzuleei; perfektuagoa zen, hori bai zela artea! Green Day taldearen abestiak, esaterako, entzuleei zerbait helarazten saiatzen dira, eta 21 guns kantak elkarren





artean gudarik ez egiteko eta bertan behera uzteko eskatzen du. Gainera, lehengo taldeek ez zuten autotonua erabiltzen, eta argi eta garbi nabaritzen zen nork jotzen edo kantatzen zuen ongi. Gaur egun, aldiz, playbacka egiten dute kontzertu askotan, beren ahotsa ona ez delako. Horrez gain, gauza batzuk aldatzen zituzten kontzertuaren erdian, hobeto geldituko zela pentsatzen zutelako eta jendea ezustekoan harrapatzeko. Gauza gehiago ere egiten zituzten inork aurreikusi gabe, eta publikoarekin batera jarduten zuten. Orain, aldiz, dena prestatuta egoten da eta ez dute ezer aldatzen, irratian entzungo bagenu bezala.

Azken finean, gustuen araberakoa da; norberak erabakitzen du zer musika mota gogoko duen. Beharbada lehengo abesti batzuk gogoko dituzu, baita oraingoak ere, eta esan ohi den moduan, “zenbat buru, hainbat aburu”. Bakoitzak bere gustuak ditu eta errespetatu egin behar dira.



EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN BARRUAN HAUR ETA GAZTE LITERATURA SUSPERTZEKO KANPAINA

ANTOLATZAILEAK

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN